



# HAUR HEZKUNTZAKO JOLASTOKIAREN ERABILPENARI BURUZKO OHARRA

*Haur Hezkuntzako jolastokia hainbat familiaren aisialdi esparrua bilakatu da. Arratsaldero, gune hori zabalik mantentzen dugu familiek, eta ikasleek bereziki, Ikastola aisialdirako aukera bezala ere goza dezaten.*

*Erabilpen hori, jakina, Ikastolan darabiltzagan hezkuntza irizpide berberekin jorratu behar da, hau da, une oro eskola ordutegi barruan darabiltzagan erabilpen eta garbitasun arauak jarraitu behar dira.*

## ERABILPEN DESEGOKIA

*Azken boladan esparru horren erabilpen desegokia antzeman dugu eta horrek Artezkaritza Kontseiluaren eta Zuzendaritzaren arteko hausnarketa partekatu hau ekarri du:*

*Jolastokian dagoen materialaren erabilpen desegokia gertatu da: kutxak apurtu, materiala aparkaleku eta mendira bota...*

*Oinarrizko garbitasun eta higie-ne neurriak ez dira betetzen: haurrek patioan bertan egiten dute txisa edo komun erabilpen desegokia egiten dute paperez edo bestelakoekin burxatu arte, hondakinak jolastokian botata gelditzen dira...*

*Esparruan aritzeko haurren gutxieneko segurtasun eta erabilpen neu-*



*rriak ez dira zaintzen: jolastokia inguratzen duen hesi gainera igotzen dira, etxetxoaren teilatu gainera...*

*Ikastolako jarduera eta pertsonetikiko errespetu faltak gertatzen dira: txirrina jotzen dute etengabe Ikastola barruan daudenen lana oztopatuz, langileei burla egiten zaie arreta deitzen zaienean...*

## NEURRI ZUZENTZAILEAK

*Egoera aztertuta, Artezkaritza Kontseiluak eta Zuzendaritzak familiarik egoeraz informatzea erabaki dute, guztion gozamenerako esparru komunitario hori behar bezala zaindu beharraz jabetu gaitzen.*

*Egoera bere onera ez bueltatzekoan, esparru hori Ikastolako ordutegi lektibotik kanpo ixtea aztertuko da.*